

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

4835

EBAZPENA, 2024ko urriaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ekintzaileei laguntzeko 2024ko ekitaldiko deialdiaren aldaketa argitaratzeko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2024ko urriaren 15eko bilkuran lortutako akordioaren bidez, ekintzaileei laguntzeko 2024ko ekitaldiko deialdia aldatzea onartu du. Erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio halakoak argitaratzea, Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua n) letran xedatutakoaren arabera (estatutuok maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartu ziren, eta bigarrenaz aldatu zituen abuztuaren 30eko 98/2022 Dekretuak).

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ekintzaileei laguntzeko laguntzen 2024ko ekitaldiko deialdiaren aldaketa argitaratzea. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2024ko urriaren 15eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu zen deialdi hori. Ebazpen honen eranskinean dakargu erabaki hori.

Bigarrena.– Jakinaraztea laguntzen deialdiaren aldaketa onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea deialdiaren aldaketa onartzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiaren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakiokela organo horri, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 16a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO 2024. EKITALDIRAKO DEIALDIA ALDATZEA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako Erabakiaren bidez, ekintzaileei laguntzeko 2024ko ekitaldiko deialdia onartu zen 2024ko apirilaren 23ko bilkuran. Deialdi hori 2024ko maiatzaren 6an argitaratu zen EHAAn, erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiak 2024ko apirilaren 24an emandako ebazpenaren bidez.

Deialdi horretan araututako laguntzak enpresa-proiektuak sustatzen dihardutenei laguntzeko emango dira, laur lerro hauen bitartez:

a) Ekintzaile izan daitezkeenentzako laguntzak, tokiko ekintzailera-proiektuen esparruan dedikazio eskusiboa izan dezaten, enpresa-idea bat sortu, aztertu eta egituratzeko (enpresa-idea bat garatzeko laguntzak).

b) Negozio-idea zehatza duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak, tokiko ekintzailera-proiektuen esparruan (enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak).

c) Enpresa-jarduera bat hasi eta jarduera hori ezartzeko laguntza ekonomikoa behar dutenentzako laguntzak (proiektua ezartzeko laguntzak).

d) Enpresa-jarduera bat hasi dutenentzako laguntzak, jarduera hori sendotzeko (enpresa-jarduera bat sendotzeko laguntzak).

Era berean, deialdi honen xede dira a) eta b) idatz-zatietan aipatzen diren laguntzen onuradun diren ekintzaileak hautatzeko eta haiei laguntza eta/edo tutoretza-lanak eskaintzeko laguntzak, deialdiaren 3. artikuluan adierazitako toki-erakundeetako laguntzaileek egin beharrekoak.

Deialdiaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde laguntzaileek hitzarmena jakinarazi eta hurrengo egunetik 2024ko urriaren 31ra arteko epea izango dute ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretzarako lanoi ekiteko, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen kasuan.

Aurrekoa kontuan hartuta, ebazpena emateko orduan izandako atzerapenak kinka larrian jarri ditu erakunde onuradunetako batzuk, eta oso zaila edo ezinezkoa da ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretza emateko jardurak hasteko ezarritako epea betetzea, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen kasuan.

Horregatik, beharrezkoa da 2024ko ekitaldirako ekintzaileentzako laguntzen deialdia aldatzea, ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretzarako jarduerak hasteko epea luzatzeko aldera, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen kasuan, hartara, behar diren lanak egiteko moduan izateko.

Hala, bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak, 2024ko urriaren 15eko bilkuran, ekintzaileei laguntzeko 2024ko ekitaldiko laguntzen deialdia aldatzea onartu du, honelaxe:

Artikulu bakarra.– Aipatutako deialdiaren 3. artikuluko 12. paragrafoko bigarren apartatua aldatu egingo da, eta honela idatzita geratuko da:

«Erakunde laguntzaileek 2024ko azaroaren 11ra arteko epea izango dute, hitzarmena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretza-jarduerak hasteko, enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen kasuan.»